

DONOSTIALDEA ESI

93/2019 EBAZPENEA, otsailaren 1ekoa, Donostialdea ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Miren Igone Esnaola Zabaleta andrea Errehabilitazioko Unitatean (Amara 3) Gainbegirale izendatu da, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESIan.

1996/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESIan Errehabilitazioko Unitatean (Amara 3) Gainbegirale lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Miren Igone Esnaola Zabaleta andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Errehabilitazioko Unitatean (Amara 3) Gainbegirale Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESIan.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. Artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Miren Igone Sarasola Zabaleta andrea Errehabilitazioko Unitatean (Amara 3) Gainbegirale Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESIan.

Bigarrena.- Izendapen honek 2019ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.- Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari eta Donostialdea ESIari jakinaraziko zaie.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostian, 2019ko otsailaren 1ean

Zuzendari Gerentea
E: Pertsonaleko Zuzendaria
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa)


DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
PERTSONALEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL
Izpta.: Esther LITAGO SOLA